7.– Agindu honek ezartzen dituen diru-laguntzak bateragarriak dira edozein erakunde publiko zein pribatu xede berberaz eman ditzaketenekin, betiere, agindu honen bidez lagundutako egitasmoak gainfinantzaketarik ez badu. Gainfinantzaketarik gertatuz gero, diru-laguntza murriztu egingo da egitasmoaren kostu osoari dagokion gehieneko kopurura ekarri arte.

21. artikulua.– Aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Laguntza-deialdian parte hartu nahi duen orok Agindu honi lotutako II. eranskina bete beharko du eta, pertsona juridiko pribatuaren legezko ordezkariak adostasuna izenpetu ondoren, hurrengo lerroaldean zehazten diren agiriekin batera aurkeztu.

2.– Eskabide-orriarekin batera honako agiri hauek ere aurkeztu beharko ditu, ezinbestean, laguntza-eskatzaileak:

a) Administrazio honetako Erregistroan dauden fundazioak edo elkarteak badira, Erregistroko ziurtagiri eguneratua. Eguneraketak eskabidea egiten den urtean egin behar du. Gainerako kasuetan, eratze-eskritura, entitateko estatutuak eta dagokion Erregistro Publikoan inskribatua dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.

b) Pertsona juridikoaren legezko ordezkariaren NANaren fotokopia eta lege-ahalmena duela egiaztatzen duen ziurtagiria.

b) En el resto: al menos el 35% del presupuesto de gastos.

4.– La financiación propia citada en el punto anterior estará integrada por las aportaciones siguientes:

- a) Contribuciones de la entidad solicitante.
- b) Las obtenidas mediante la venta de servicios.
- c) Las obtenidas mediante la venta de productos.
- d) Las obtenidas mediante publicidad.
- e) Las recibidas de entidades privadas.

5.– Únicamente podrán recibir las subvenciones contempladas en esta modalidad los proyectos que son deficitarios, es decir, aquellos proyectos que no puedan cubrir los gastos previstos mediante su financiación propia obligatoria.

6.– La subvención adjudicada según los criterios de valoración establecidos a cada proyecto que se acoja a la convocatoria y cumpla todos los requisitos de la misma no superará el importe solicitado. De cualquier modo, el importe de la ayuda concedida a cada proyecto no superará los treinta mil (30.000,00) euros ni será inferior a quinientos (500,00) euros. No se concederán importes inferiores a dicha cantidad. Consecuentemente, los proyectos que se encuentren en esta situación quedarán excluidos de la subvención.

7.– Las subvenciones previstas en el capítulo segundo de la presente Orden son compatibles con aquellas que, teniendo el mismo objeto, pudieran ser otorgadas por cualquier otra entidad pública o privada, siempre que de ello no se derive la sobre financiación. En caso de sobre financiación, se reducirá el importe de la subvención hasta el límite máximo que corresponda al coste total del programa subvencionado.

Artículo 21.– Presentación del impreso de solicitud y del resto de la documentación.

1.– Las entidades que quieran acogerse a esta convocatoria de ayudas deberán presentar el impreso de solicitud que se adjunta en el anexo II de esta Orden, debidamente cumplimentado y firmado por la persona que representa legalmente a la entidad jurídica privada. Además, deberán presentar los documentos señalados en el apartado siguiente.

2.– Las entidades solicitantes de la ayuda deberán presentar junto al impreso de solicitud, necesariamente, los documentos siguientes:

a) En el caso de fundaciones o asociaciones que figuren en el Registro de esta Administración, certificado del Registro. En los demás casos, escritura de constitución, estatutos de la entidad y certificado de la inscripción en el Registro Público que corresponda.

b) Fotocopia del DNI del representante legal de la persona jurídica y certificado que acredite su capacidad legal.

c) IFZaren fotokopia.

d) Dagozkion zerga-ordainketan egunean egotearen ziurtagiri originala edo kopia konpultsatua, kasuan kasuko Foru Aldundiak edo Ogasun Publikoak sinatua. Era berean, Gizarte Segurantzaren egunean egotearen ziurtagiria. Gehienez, eskabidea aurkeztu baino hiru hilabete lehenagokoak izango dira, eta organo eskumendunak emana. Dena den, dokumentazio hori dela eta, jardunbideak irauten duen bitartean eskatzen zaizkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu onuradunak.

e) Burutu nahi den egitasmoa burutu ahal izateko jabego intelektualari loturiko elementuen ustiapen-eskubideak beharrezkoak direnean, eskubide horien jabe dela ziurtatuz entitatearen izenean ari den legezko ordezkariak sinatutako zinpeko aitortpena.

f) Bestelako diru-laguntzarik eskatu ez bada, hori adierazten duen zinpeko aitortpena.

3.- Aurreko lerroaldean zehaztutako a), b) eta c) puntuetako agirietaoren bat edo gehiago Administrazio honetan lehenago ere aurkeztua izan bada, eta ordutik hiru urte igaro ez badira, eskatzaileak ez du nahitaez berriro aurkeztu behar izango. Nahikoa du delako agiri hori zein egun, organo edo bulegotan aurkeztu duen Euskara Sustatzeko Zuzendaritzari adieraztea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 35. artikuluan agindutakoari jarraituz. Zeregin horri ekin behar izatekotan, honako Agindu honi lotutako II.B eranskina bete eta aurkeztu egin behar da.

4.- Eskatzaileak eskabide-orri bat baino gehiago aurkeztzen duenean, erantsi beharreko dokumentazioa, bigarren lerroaldeko e) puntuko agiria izan ezik, bakarra izan daiteke eskabide-orri guztientzat.

5.- Egitasmoa elkarlanean burutzekoa denean, elkarlanean arituko diren pertsona juridiko pribatu bakoitzari dagozkion agiriak aurkeztu beharko dira. Halaber, horien arteko lankidetzaren terminoak jasoko dituen agiria aurkeztu behar izango da. Agiri horrek elkartutako pertsona juridiko pribatu bakoitzeko legezko ordezkariak izenpetua egon beharko du eta, bertan, elkartutako pertsona juridiko pribatuen ordezkari bakar bat izendatuko da eta diru-laguntzaren inguruko betebeharrak betetzeko ahalmen nahikoa emango zaio.

22. artikulua.- Balorazio-Batzordea.

1.- Aurkeztutako eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko, berriazko balorazio-batzorde bat osatuko da.

2.- Balorazio-batzordea honako kide hauek osatuko dute:

a) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Euskara Sustatzeko zuzendaria, batzordearen buru izango dena.

c) Fotocopia del NIF.

d) Certificado original o copia compulsada firmado por la Hacienda Foral o Hacienda Pública correspondiente, acreditativo del cumplimiento de sus obligaciones tributarias. Asimismo, certificado acreditativo de estar al corriente en el pago a la Seguridad Social. Deberán estar expedidos por el órgano competente en los tres meses anteriores al de la presentación de la solicitud. En todo caso, la entidad beneficiaria estará obligada a presentar cuanta documentación se le requiera mientras dure el procedimiento.

e) En caso de que sean obligatorios los derechos de explotación de los elementos vinculados a la propiedad intelectual para poder desarrollar el proyecto en cuestión, declaración jurada firmada por la persona representante que actúe en nombre de la entidad, acreditativa de la titularidad de dichos derechos.

f) En caso de que se no haya solicitado otra subvención pública, declaración jurada.

3.- Cuando con anterioridad se hayan presentado en esta Administración uno o más de los documentos mencionados en los puntos a), b) y c) del apartado anterior, y desde entonces no hayan transcurrido más de tres años, el solicitante no tendrá la obligación de presentarlos de nuevo. Será suficiente con que indique a la Dirección de Promoción del Euskera en qué fecha, órgano o dependencia presentó el citado documento, de conformidad con lo establecido en el artículo 35 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común. Para ello, deberá completar y presentar el anexo II.B que acompaña a esta Orden.

4.- En caso de que la entidad solicitante presente más de un impreso de solicitud, la documentación que se adjunte podrá ser única para todas las solicitudes, excepto la señalada en el punto e) del apartado 2.

5.- En caso de que se trate de un proyecto desarrollado entre varias personas jurídicas, se deberá presentar la documentación de cada una de ellas. Asimismo, se deberá presentar un documento en el que consten los términos de dicha cooperación. El documento estará firmado por la persona que representa legalmente a cada una de las personas jurídicas privadas asociadas, y a efectos del cumplimiento de las obligaciones relativas a las subvenciones se designará a un único representante de las personas jurídicas privadas asociadas, otorgándosele para ello el poder suficiente.

Artículo 22.- Comisión de valoración.

1.- Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá una Comisión de valoración.

2.- La Comisión de valoración estará integrada por los siguientes miembros:

a) Director/a de Promoción del Euskera de la Viceconsejería de Política Lingüística que presidirá la Comisión.

b) Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria.

c) Arabako Foru Aldundiko Euskera, Kultura eta Kiroleko zuzendaria.

d) Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara sustatzeko zuzendari nagusia.

e) Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen normalizatzeko zuzendari nagusia.

f) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Dokumentazio eta Informazio Zerbitzuaren arduraduna.

g) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako teknikari bat, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak izendatutakoa. Horrek idazkari-lanak egingo ditu eta hitza izango du, baina ez botorik.

3.— Batzorde horrek, deialdian zehar finkaturiko irizpideak eta mugak kontuan izanik, ebazpen-proposamena landu eta aurkeztuko dio Hizkuntza Politikarako sailburuordeari, honek, zuzen eta bidezkoztat joz gero, behin betiko ebazpena har dezan.

4.— Ebazpen-proposamenak, gutxienik, honako atal hauek izango ditu:

a) Deialdian finkaturiko baldintzak bete ez izanagatik baztertuak izan diren eskabideen zerrenda eta horietako bakoitza baztertu izanaren zioa.

b) Diruz lagundutako egitasmoak: diru-laguntza eta puntuazioa, osotara eta atalkakoa.

c) Gutxieneko puntuazioa lortu ez izanagatik diru-laguntzarik gabe utzitako egitasmoak eta horiek lortutako puntuazioa, osotara eta atalkakoa.

23. *artikulua*.— Esleipen-prozedura.

1.— Esleipen-prozedurari ekin aurretik, baloraziorako onartutako eskabideak Agindu honen 24. artikuluan finkatutako irizpideen arabera baloratuko dira.

2.— Eskabideek, aurrera egitekotan, jaso litezkeen puntuetatik 70 puntu edo hortik gora lortu beharko dituzte. Ondorioz, esandako gutxieneko puntuazio horretatik beherako puntuazioa lortzen duten egitasmoek ez dute diru-laguntzaren banaketan sartzerik izango eta, ondorioz, ez dute diru-laguntzarik hartuko.

3.— Egitasmo bakoitzari legokiokkeen diru-laguntza finkatzeko orduan, gastu-aurrekontua abiapuntutzat hartuko da.

4.— Egitasmo bakoitzari emandako puntuazioak gastu-aurrekontuaren estalpen-indizea zehaztuko du.

5.— Aurreko lerroaldean esandako moduan kalkulaturako diru-laguntzen baturak diru-baliabideen muga

b) Director/a de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas.

c) Director/a de Euskera, Cultura y Deportes de la Diputación Foral de Álava.

d) Director/a general de Promoción del Euskera de la Diputación Foral de Bizkaia.

e) Director/a general para la Normalización del Euskera de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

f) Responsable del Servicio de Documentación e Información de la Dirección de Promoción del Euskera de la Viceconsejería de Política Lingüística.

g) Técnico/a de la Dirección de Promoción del Euskera de la Viceconsejería de Política Lingüística, designado/a por el Viceconsejero de Política Lingüística. Actuará como secretario/a, con voz pero sin voto.

3.— La Comisión de valoración, habida cuenta de los criterios y límites establecidos en la convocatoria para la adjudicación de las subvenciones, presentará la propuesta de resolución al Viceconsejero de Política Lingüística con el fin de que dicte, si la considera oportuna, la resolución definitiva.

4.— La propuesta de resolución contendrá, como mínimo, los siguientes apartados:

a) Listado de las solicitudes que hayan sido desestimadas por no cumplir los requisitos de la convocatoria, explicitando en cada caso el motivo de la desestimación.

b) Proyectos subvencionados: cuantía de la subvención y puntuación, tanto parcial como total, obtenida.

c) Proyectos no subvencionados por no haber alcanzado la puntuación mínima: puntuación, tanto parcial como total, obtenida.

Artículo 23.— Procedimiento de adjudicación.

1.— Con anterioridad a la aplicación del procedimiento de adjudicación, se procederá a la valoración de los proyectos que hayan pasado a la fase de valoración. Dicha valoración se llevará a cabo de acuerdo a los criterios establecidos en el artículo 24.

2.— Los proyectos, para seguir adelante en el procedimiento, habrán de obtener 70 o más puntos. En consecuencia, aquellos proyectos que no obtengan la puntuación mínima requerida, no participarán en el proceso de distribución de las ayudas y, consiguientemente, no recibirán subvención alguna.

3.— A la hora de determinar la subvención correspondiente a cada proyecto, se tomará como referencia el presupuesto de gasto.

4.— La puntuación obtenida por cada uno de los proyectos establecerá el índice de cobertura del presupuesto de gasto.

5.— En el caso de que la suma de las subvenciones calculadas supere el total de la dotación económica pre-

gainditzen badu, kasuan kasu esleitu beharreko diru-kopurua banaketa-sistema proportzionalaren arabera finkatuko da.

6.– Edozein kasutan ere, 20.6 artikulua ezarritako mugak errespetatu egingo dira.

24. artikulua.– Diru-laguntzak esleitzeko irizpideak.

1.– Eskabideei buruzko ebazpen-proposamena lantzen eta diruzko zenbatekoak finkatzeko orduan, zeregin horretarako berariaz eraturako balorazio-batzordeak honako irizpide eta balio hauek izango ditu kontuan:

a) Finantzaketa maila propioa: 20 puntu.

b) Eragin-eremua (jasotzaile mota, jasotzaile kopurua, zabalkundea...): 30 puntu.

c) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak Hizkuntza Politika aurrera begira izenarekin 2005-2009 epealdirako argitaratutako egitasmoan jasotako lan-ildoak jarraituz, euskararen sustapenean, garapenean eta normalizazioan izan dezakeen eragina. Originaltasuna edo berritasun maila, kalitatea, erakargarritasuna, bideragarritasuna eta balio erantsia: 50 puntu.

2.– Aurreko lehenaldetik finkatutako irizpideetako bakoitzari dagokion puntuazioaren zehaztapena, balorazio-batzordeak berariaz prestatutako ponderazio-taula batean jasoko da. Taula hori balorazio-batzordeak Hizkuntza Politikarako sailburuordeari egin beharreko ebazpen-proposamenari erantsiko zaio.

25. artikulua.– Diru-laguntzaren justifikazioa.

1.– Justifikazioa aurreikusitako egitasmoa burutu eta berehala egin daiteke. Justifikazio hori aurkezteko azken eguna 2009ko urtarrilaren 31 izango da.

2.– Honako hauek dira justifikatze aldera aurkeztu beharrekoak:

a) Diruz lagundutako egitasmoari buruzko txosten zehatza. Besteak beste, honako eduki hauek jasoko ditu: ezarritako xedea betetze aldera noiz-zer egin den, zeregin horretan aritutako norbanakoak, erabilitako biltzarretakoak, sortutako materiala, eragin soziala eta balorazio orokorra.

b) Hala dagokionean, sortutako materialaren ale batzuek paperean zein euskarri elektronikoan.

c) Diruz lagundutako egitasmoari dagokion behin betiko aurrekontua (II.F eranskina).

d) Gastuen jatorrizko justifikazio-agiriak edo horien kopia konpultsatutakoak. Konpultsak tokian tokiko Kulturako Lurralde Unitatean edo Kultura Sailaren egoitza nagusian egin beharko dira. Eskabide-orrian adierazitako gastu guztien justifikazioa egingo da, edozein delarik ere, esleitutako diru-laguntza.

vista, la cantidad a subvencionar en cada caso se determinará por el sistema de reparto proporcional.

6.– En cualquiera de los dos supuestos anteriores se respetarán los límites establecidos en el artículo 20.6.

Artículo 24.– Criterios.

1.– Al objeto de elaborar la propuesta de resolución de las solicitudes de subvenciones y de establecer las cuantías de las mismas, la Comisión de valoración tendrá en cuenta los criterios y valores siguientes:

a) Grado de financiación propia: 20 puntos.

b) Ámbito de aplicación (tipo de receptores, número de receptores, difusión,...): 30 puntos.

c) Grado de incidencia en la promoción, desarrollo y normalización del euskera, en base a las líneas de actuación marcadas por la Viceconsejería de Política Lingüística en la publicación titulada Futuro de la política lingüística. Proyecto 2005-2009. Originalidad o nivel de innovación, calidad, grado de atracción, viabilidad y valor añadido: 50 puntos.

2.– La puntuación correspondiente a cada uno de los criterios establecidos en el apartado anterior se recogerá en una tabla de ponderación creada a tal efecto por la Comisión de valoración para cada grupo. Dicha tabla se adjuntará a la propuesta de resolución que la Comisión de valoración remita al Viceconsejero de Política Lingüística.

Artículo 25.– Justificación de la subvención.

1.– La justificación podrá presentarse tan pronto como se haya ejecutado el proyecto previsto. El último día disponible para la presentación de la justificación será el 31 de enero de 2009.

2.– Deberá presentarse la documentación siguiente:

a) Memoria detallada del proyecto subvencionado. Recogerá, entre otros, los siguientes aspectos: actividades llevadas a cabo a fin de cumplir el objeto previsto, calendario, personal implicado en dichas actividades, infraestructura utilizada, material creado, impacto social y valoración general.

b) Cuando así corresponda, un ejemplar del material creado, tanto en formato papel como en soporte electrónico.

c) Presupuesto definitivo de la actividad subvencionada (anexo II.F).

d) Justificantes originales o fotocopias compulsadas de los gastos. Las compulsas se podrán realizar en las Unidades Territoriales de Cultura o en la sede principal del Departamento de Cultura. Se presentará la justificación de todos los gastos presupuestados en la solicitud, independientemente de la cuantía de la ayuda concedida.

e) Esleitutako diru-laguntza justifikatze aldera aurkeztutako gastu-agirien zehaztapen-orria (II.G eranskina).

f) Diruz lagundutako egitasmoari dagokion laburpen ekonomikoa (II.H eranskina).

g) Eskabide-orrian zehaztutako aurrekontuan jaso gabe egon arren, diruz lagundutako egitasmoak izan dituen gainerako diru-laguntzen zerrenda. Gainerako diru-laguntzarik izan ez bada, horixe adierazten duen zinpeko aitortpena.

h) Euskararen zuzentasunari, jatortasunari eta egokitasunari erreparatu dien arduradunaren ziurtagiria, lan horri artez eta moldez ekin diola esanaz (II.i eranskina).

26. artikulua.— Kultura Sailaren aipamena.

Kultura Sailak emandako babesaren berri adieraztea, diruz lagundutako egitasmoaren argitan kaleratutako euskarri guztietan. Hori dela-eta, Eusko Jaurlaritzaren armarrria jarri beharko du honako esaldi hau ondoan duelarik: «Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundutakoa». Diru-laguntza esleituz eman beharreko Ebazpena eman aurretik gauzatutako egitasmoak betebeharrak hori betetzetik kanpo egongo dira.

III. KAPITULUA EUSKARAZKO HEDABIDEAK SENDOTU, GARATU ETA NORMALIZATZEKO DIRU-LAGUNTZAK (HEDABIDEAK)

27. artikulua.— Onuradunak.

1.— Beharrezko lege-nortasunez horniturik egon eta, aldi berean, dagokion erroldan izena emanik, 28. artikuluan aipaturiko hedabideen jabe diren pertsona juridiko pribatuei zuzendurik dago laguntza-mota hau.

28. artikulua.— Deialdira bil daitezkeen egitasmoak.

1.— Honako hauek dira, multzoka emanda, laguntza-mota honetara bil daitezkeen hedabideak eta aldizkako argitalpenak:

1.1.— A multzoa: euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatua; euskararen esparru geografiko osoan eta udalerri edo eskualde jakinetan zabaltzen diren egunkariak.

1.2.— B multzoa: euskara hutsezko aldizkari inprimatuak:

— B1 azpi-multzoa: Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak zein aldizkari espezializatuak (pentsamendua, zientzia, musika, natura, haur eta gazteei zuzendutakoak...).

e) Concreción de los justificantes de gasto presentados al objeto de justificar la subvención (anexo II.G).

f) Resumen económico correspondiente al proyecto subvencionado (anexo II.H).

g) Aunque no figure en el presupuesto presentado en el impreso de solicitud, la relación de las demás subvenciones de las que se ha beneficiado el proyecto subvencionado. Si no hubiera recibido ninguna otra subvención, la declaración jurada que lo acredite.

h) Certificado de la persona responsable que garantice que se ha tenido en consideración la corrección, el casticismo y la propiedad del euskera (anexo II.i).

Artículo 26.— Mención del Departamento de Cultura.

Deberá mencionar el patrocinio del Departamento de Cultura en todos los soportes publicados que se deriven del proyecto. Por ese motivo, deberá figurar el escudo del Gobierno Vasco acompañado de la siguiente frase: «Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundutako egitasmoa». No obstante, aquellos proyectos ejecutados antes de que se dicte la Resolución de adjudicación de las subvenciones estarán exentos de esta obligación.

CAPÍTULO III SUBVENCIONES DESTINADAS A LA CONSOLIDACIÓN, DESARROLLO Y NORMALIZACIÓN DE LOS MEDIOS DE COMUNICACIÓN EN EUSKERA (HEDABIDEAK)

Artículo 27.— Beneficiarios.

1.— Esta modalidad de subvenciones está dirigida a todas aquellas personas jurídicas privadas que, provistas de la personalidad jurídica necesaria y, al mismo tiempo, estén inscritas en el correspondiente registro, sean propietarias de los medios de comunicación que se mencionan en el artículo 28.

Artículo 28.— Proyectos objeto de subvención.

1.— Estos son, ordenados por grupos, los medios de comunicación y publicaciones periódicas que podrán ser objeto de subvención:

1.1.— Grupo A: prensa diaria impresa íntegramente en euskera: diarios que se distribuyen en todo el ámbito geográfico del euskera y diarios que se distribuyen en determinados municipios o comarcas.

1.2.— Grupo B: revistas impresas íntegramente en euskera.

— Subgrupo B1: revistas de información general o revistas especializadas (pensamiento, ciencia, música, naturaleza, infantil y juvenil...), distribuidas en todo el ámbito geográfico del euskera.

– B2 azpi-multzoa: udalerrri eta eskualde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak.

1.3.– C multzoa: nagusiki gaztelania darabilten egunkarien euskara hutsezko gehigarriak.

1.4.– D multzoa: emititu ahal izateko beharrezkoak diren baimenen jabe izanik, zati batean edo osorik, euskaraz ari diren uhin bidezko irratiak.

1.5.– E multzoa: zati batean edo osorik, euskaraz ari diren telebistak.

1.6.– F multzoa: Internet bidezko hedabideak eta berri agentziak:

– Euskara hutsezko egunkari eta aldizkariak.

– Zati batean edo osorik, euskaraz ari diren irratiak.

– Notiziak euskaraz ematen dituzten berri-agentziak.

2.– Laguntza mota honetara ezin izango dira bildu, dena dela, honako ezaugarri hauetakoren bat duten hedabideak:

a) Beren kapitalean herri-administrazio batek edo gehiagok partaidetzaren gehiengoa duten hedabideak.

b) Euskadiko Administrazio Orokorra osatzen duten entitateen hedabideak.

c) Alderdi politiko, hauteskundeetarako koalizio, sindikatu, gizarte-mugimendu, Gobernu kanpoko erakunde nahiz elkargoen hedabideak.

d) Elkartea, fundazio zein antzeko erakundeek beren bazkideentzat soil-soilik eginiko hedabideak.

e) Glotodidaktika, psikopedagogia eta hezkuntza arloko aldizkariak.

f) Eskola-aldizkari, -irradi eta -telebistak.

g) Kultur berripaperak, ikuskizun-gidak, denbora pasakoak eta antzekoak.

h) Mota guztietako konfidentzialak, harpidetza birtuetan nahiz kioskoan saldutakoak edo formatu elektronikokoan zabaldutakoak.

i) Informazio orokorrekoak edota gai anitzeko informaziokoak ez diren tokian tokiko aldizkariak.

j) Era berean, laguntza-deialdi honetan sarbiderik izan arren, kanpoan utziko dira Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza 2008an diruz lagundutako egitasmoak edo Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren eta Euskararen Erakunde Publikoaren arteko hitzarmenaren baitan diruz lagundutakoak. Era berean, egoitza soziala zein fiskala

– Subgrupo B2: revistas de información general, distribuidas en un municipio o comarca concreta.

1.3.– Grupo C: suplementos íntegramente en euskera de diarios que utilizan principalmente el castellano.

1.4.– D: radios que, disponiendo de las correspondientes autorizaciones, emiten parcialmente o íntegramente en euskera a través de las ondas.

1.5.– E: televisiones que parcialmente o íntegramente emiten en euskera.

1.6.– F: medios de comunicación de Internet y agencias de noticias:

– Diarios y revistas íntegramente en euskera.

– Radios que emiten parcial o íntegramente en euskera.

– Agencias de noticias en euskera.

2.– No podrán acogerse a esta modalidad, en cualquier caso, aquellos medios de comunicación que se encuentren en alguna de las siguientes circunstancias:

a) Medios de comunicación en cuyo capital sea mayoritaria la participación de una o varias administraciones públicas.

b) Medios de comunicación pertenecientes a entidades integrantes de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

c) Medios de comunicación pertenecientes a partidos políticos, coaliciones electorales, sindicatos, movimientos sociales, organizaciones no gubernamentales o colegios profesionales.

d) Medios de comunicación pertenecientes a asociaciones, fundaciones o similares dirigidos única y exclusivamente a los socios y socias de las mismas.

e) Revistas de glotodidáctica y psicopedagogía y aquellas cuyo contenido esté ligado al sector educativo.

f) Revistas, radios y televisiones escolares.

g) Boletines culturales, guías de espectáculos, pasatiempos y similares.

h) Toda publicación de tipo confidencial, distribuida ya sea por medio de suscripción ya sea a través de venta en quioscos o en formato electrónico.

i) Las publicaciones locales que no sean de información general y/o multidisciplinar.

j) Aquellos proyectos que, aun siendo objeto de subvención, hayan recibido alguna ayuda económica de la Viceconsejería de Política Lingüística del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco a lo largo del año 2008 o aquellos medios de comunicación objeto de subvención en el marco del convenio suscrito entre la Viceconsejería de Política Lingüística y Euskararen Erakunde Publikoa / Office public de la langue basque. Del

la Iparraldean duten entitateek aurkeztutako egitasmoak.

29. artikulua.— Diru-baliabideak.

Guztizko kopurua modu honetan banatuko da:

a) A multzoa: bi milioi hiru mila laurehun eta laurogei (2.003.480,00) euro.

b) B multzoa: milioi bat bederatzehun eta bat mila ehun eta hogeia (1.901.120,00) euro. Diru-kopuru hori honela banatuko da multzoz multzo:

– B1 azpi-multzoa: milioi bat ehun eta berrogeita hamaika mila (1.151.000,00) euro.

– B2 azpi-multzoa: zazpiehun eta berrogeita hamar mila ehun eta hogeia (750.120,00) euro.

c) C multzoa: bostehun eta hirurogeita zortzi mila eta seihun (568.600,00) euro.

d) D multzoa: hirurehun eta hogeita bederatzia mila (329.000,00) euro.

e) E multzoa: bostehun eta hirurogeita hamabost mila (575.000,00) euro.

f) F multzoa: ehun eta laurogeita hamazazpi mila eta zortziehun (197.800,00).

30. artikulua.— Laguntza mota honetan parte hartu ahal izateko baldintzak.

1.— Deialdira biltzen den hedabideak eskabidea eta agiriak aurkezteko azken eguna baino lehen kalean izan behar du, ohikoa izango duen maiztasunarekin edo jardunarekin.

2.— Era berean, deialdian parte hartu ahal izateko, honako baldintza bereziak bete behar dira:

2.1.— A, B eta C multzoei dagozkien baldintza bereziak:

2.1.1.— Legezko gordailuaren edota ISSN delako zenbakiaren jabe izatea. Besterik ezean, zenbakion eskabidea tramitatuta izatea.

2.1.2.— Banaketa-sistema gardena eta agerikoa izatea.

2.1.3.— Salneurriaren berri ematea eta harpidetza-sistemaren bat erabiltzen denean argi adieraztea ale bakoitzean. Dohainik zabaltzen diren hedabideen kasuan ez da aurreko hori bete beharrik izango.

2.1.4.— Gutxieneko maiztasuna izatea. Gutxieneko maiztasun horiek 2008ko urtarrilaren 1ean kalean diren hedabide eta aldizkako argitalpenentzat dira, gainerakoei proportzioan eskatuko zaie.

a) A multzoa: astean 4 zenbaki.

b) B multzoa:

mismo modo aquellos proyectos presentados por entidades que tengan su domicilio social o fiscal en el País Vasco francés (Iparralde).

Artículo 29.— Recursos económicos.

El importe total señalado se distribuirá de la siguiente manera:

a) Grupo A: dos millones tres mil cuatrocientos ochenta (2.003.480,00) euros.

b) Grupo B: un millón novecientos un mil ciento veinte (1.901.120,00) euros. Dicho importe se distribuirá de la siguiente forma:

– Subgrupo B1: un millón ciento cincuenta y un mil (1.151.000,00) euros.

– Subgrupo B2: setecientos cincuenta mil ciento veinte (750.120,00) euros.

c) Grupo C: quinientos sesenta y ocho mil seiscientos (568.600,00) euros.

d) Grupo D: trescientos veintinueve mil (329.000,00) euros.

e) Grupo E: quinientos setenta y cinco mil (575.000,00) euros.

f) Grupo F: ciento noventa y siete mil ochocientos (197.800,00) euros.

Artículo 30.— Requisitos para participar en la convocatoria.

1.— Los medios de comunicación que se acojan a esta modalidad deberán estar presentes en el mercado antes del último día disponible para la presentación de las solicitudes y la documentación, con la periodicidad y funcionamiento habituales.

2.— Asimismo, para poder tomar parte en la convocatoria es necesario cumplir los siguientes requisitos específicos:

2.1.— Requisitos específicos para los grupos A, B y C:

2.1.1.— Tener asignado el número de Depósito Legal o de ISSN, o en su defecto, haber tramitado su solicitud.

2.1.2.— Tener un sistema de distribución claro y transparente.

2.1.3.— Dar a conocer el precio y, cuando se emplee un sistema de suscripción, exponerlo claramente en cada ejemplar. Los medios de comunicación que se distribuyan gratuitamente estarán exentos de este requisito.

2.1.4.— Tener una periodicidad mínima, definida para los medios de comunicación y publicaciones periódicas que estén en la calle el día 1 de enero de 2008; al resto se les exigirá una periodicidad proporcional.

a) Grupo A: 4 números por semana.

b) Grupo B:

– Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak: urtean 44 zenbaki.

– Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren aldizkari espezializatuak (pentsamendua, zientzia, musika, natura, haur eta gazteei zuzendutakoak...): urtean 4 zenbaki.

– Udalerri eta eskualde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak: urtean 11 zenbaki.

c) C multzoa: urtean 44 zenbaki.

2.1.5.– Formatua eta orrialde-kopurua. Kasu bakoitzean zehaztutako formatua erabili beharrean beste bat erabiliz gero, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzak berariaz prestatutako baliokidetasun-taula erabiliko du.

a) A multzoa:

– Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen den euskara hutsezko eguneroko prentsa: tabloide formatuko 28 orrialde edo gehiago.

– Udalerri edo eskualde jakinetan zabaltzen den euskara hutsezko eguneroko prentsa: tabloide formatuko 4 orrialde edo gehiago.

b) B multzoa:

– Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak: DIN-A4 formatuko 20 orrialde edo gehiago.

– Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren aldizkari espezializatuak (pentsamendua, zientzia, musika, natura, haur eta gazteei zuzendutakoak...): DIN-A4 formatuko 32 orrialde edo gehiago.

– Udalerri eta eskualde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak: DIN-A4 formatuko 16 orrialde edo gehiago.

c) C multzoa: tabloide formatuko 16 orrialde edo gehiago.

2.1.6.– Nagusiki gaztelania darabilten egunkarien euskara hutsezko gehigarrien kasuan,

a) gutxienez ere euskararen esparru geografikoko lurralde historiko batean banatuko dira.

b) Merkataritza-enpresa batek gehienez gehigarri bat izango du diru-laguntza gai. Baldintza hau salbuetsi ahal izango da C multzorako jarritako diru-kopurua osorik erabiltzeko behar beste eskaerarik aurkeztu ezean, betiere balorazio-batzordeak horrela arrazoitu eta proposatuz gero.

2.1.7.– Jarraian eta etengabe izen berberarekin argitaratzea.

2.1.8.– Aleek zenbakikuntza jakin bati jarraitzea eta data jarrita izatea.

– Revistas de información general íntegramente en euskera, distribuidas en todo el ámbito geográfico del euskera: 44 números al año.

– Revistas especializadas (pensamiento, ciencia, música, naturaleza, infantil y juvenil...) íntegramente en euskera, distribuidas en todo el ámbito geográfico del euskera: 4 números al año.

– Revistas de información general que se distribuyen en determinados municipios o comarcas: 11 números al año.

c) Grupo C: 44 números al año.

2.1.5.– Formato y número de páginas. Si en lugar de utilizar el formato expresado en cada caso se utilizase cualquier otro, la Dirección de Promoción del Euskera aplicará las tablas de equivalencia dispuestas al efecto.

a) Grupo A:

– Prensa diaria impresa íntegramente en euskera que se distribuye en todo el ámbito geográfico del euskera: 28 o más páginas en formato tabloide.

– Prensa diaria impresa íntegramente en euskera que se distribuye en determinados municipios o comarcas: 4 o más páginas en formato tabloide.

b) Grupo B:

– Revistas de información general que se distribuyen en todo el ámbito geográfico del euskera: 20 o más páginas en formato DIN-A4.

– Revistas especializadas (pensamiento, ciencia, música, naturaleza, infantil y juvenil...) distribuidas en todo el ámbito geográfico del euskera: 32 o más páginas en formato DIN-A4.

– Revistas de información general que se distribuyen en determinados municipios o comarcas: 16 o más páginas en formato DIN-A4.

c) Grupo C: 16 o más páginas en formato tabloide.

2.1.6.– En el caso de suplementos íntegramente en euskera de diarios que utilizan principalmente el castellano:

a) Deberán distribuirse como mínimo en uno de los territorios históricos del ámbito geográfico del euskera.

b) Cada empresa comercial podrá ser subvencionada únicamente a razón de un suplemento. Este requisito podrá ser obviado en el caso de que no se presenten suficientes solicitudes como para agotar por completo la cuantía destinada al grupo C, siempre que la Comisión de Valoración razone y haga la propuesta en este sentido.

2.1.7.– Que se publiquen en serie continua e ininterrumpidamente con el mismo nombre.

2.1.8.– Que los ejemplares de la serie lleven una numeración consecutiva y estén fechados.

2.1.9.— Originala izatea. Hots, agindu honetan laguntza gai den hedabide edo aldizkako argitalpen baten aldaerarik ez da onartuko.

2.2.— D multzoari dagozkion baldintza bereziak: urtean zehar, astero-astero, gutxienez ere 25 orduz euskaraz emititzea. Aurrerago aipaturiko emisio-orduen zenbaketa egiterako orduan ez da aurretiaz emititutako programen birjartzeari dagozkion ordu-kopurua kontuan hartuko, ezta musika hutsezko programei dagokiena ere. Era berean, ez dira inoren programa edo informazio-tartearen aldi bereko zein diferitutako emanaldiei dagozkien orduak kontuan hartuko.

2.3.— E multzoari dagozkion baldintza bereziak: urtean zehar, astero-astero, gutxienez ere 10 orduz euskaraz emititzea. Aurrerago aipaturiko emisio-orduen zenbaketa egiterako orduan ez da norberak aurretiaz emititutako programen birjartzeari dagozkion ordu-kopurua kontuan hartuko, ezta musika hutsezko programei dagokiena ere.

2.4.— F multzoari dagozkion baldintza bereziak:

2.4.1.— Euskara hutsezko egunkari eta aldizkariak dagokienez,

a) Gutxieneko kalitate-estandarra bete behar da.

b) Maiztasuna: gutxienez ere astebeteko maiztasuna izan behar du.

c) Izandako bisita-kopurua neurtze aldera, agerian edo ezkutuan egongo den bisita-neurgailua eduki behar dute. Ezkutuan bada, eskatzaileak bisita-neurgailuaren emaitzak ikusi ahal izateko aukera teknikoa emango dio Euskara Sustatzeko Zuzendaritzari.

2.4.2.— Zati batean edo osorik euskaraz ari diren irratiei dagokienez,

a) Emisioa zuzenekoa izango da.

b) Emisio-orduek: astero-astero, gutxienez ere 25 orduz euskaraz emititzea. Aipaturiko orduon zenbaketa egiterako orduan ez da aurretiaz emititutako programen birjartzeari dagozkion ordu-kopurua kontuan hartuko, ezta musika hutsezko programei dagokiena ere. Era berean, ez dira inoren programa edo informazio-tartearen aldi bereko zein diferitutako emanaldiei dagozkien orduak kontuan hartuko.

c) Izandako bisita-kopurua neurtze aldera, agerian edo ezkutuan egongo den bisita-neurgailua eduki behar dute. Ezkutuan bada, eskatzaileak bisita-neurgailuaren emaitzak ikusi ahal izateko aukera teknikoa emango dio Euskara Sustatzeko Zuzendaritzari.

2.4.3.— Notiziak euskaraz ematen dituzten berri agentzien kasuan, egunero gutxienez ere hamabi berri zabaldu beharko da, jarduera hori urtean zehar gauzatuz.

2.1.9.— Que sea original, es decir, no se admitirán variantes de medios de comunicación o publicaciones periódicas objeto de subvención en esta Orden.

2.2.— Requisitos específicos para el grupo D: deberán emitir durante todo el año, semana tras semana, programas radiofónicos en euskera, con una duración mínima de 25 horas semanales. En este cómputo de horas no se tendrán en cuenta las reposiciones de programas ya emitidos anteriormente ni las correspondientes a programas íntegramente musicales. Asimismo, no se computarán las horas relativas a emisiones simultáneas o diferidas de programas o espacios informativos ajenos.

2.3.— Requisitos específicos para el grupo E: deberán emitir durante todo el año, programas televisivos en euskera, con una duración mínima de 10 horas semanales. En este cómputo de horas no se tendrán en cuenta las reposiciones de programas ya emitidos anteriormente ni las correspondientes a programas íntegramente musicales.

2.4.— Requisitos específicos para el grupo F:

2.4.1.— En cuanto a diarios y revistas íntegramente en euskera:

a) Cumplimiento de los mínimos estándares de calidad.

b) Periodicidad: deberán tener una periodicidad mínima semanal.

c) Deberán disponer de un contador de visitas, visible u oculto, que registre el número de visitas. Si está oculto, la entidad solicitante deberá facilitar a la Dirección de Promoción del Euskera la opción técnica oportuna para poder conocer los resultados del contador de visitas.

2.4.2.— En cuanto a radios que emitan parcial o íntegramente en euskera:

a) La emisión será en directo.

b) Número de horas de emisión: deberán emitir, como mínimo, 25 horas semanales. En este cómputo de horas no se tendrán en cuenta las reposiciones de programas ya emitidos anteriormente ni las correspondientes a programas íntegramente musicales. Asimismo, no se computarán las horas relativas a emisiones simultáneas o diferidas de programas o espacios informativos ajenos.

c) Deberán disponer de un contador de visitas, visible u oculto, que registre el número de visitas. Si está oculto, la entidad solicitante deberá facilitar a la Dirección de Promoción del Euskera la opción técnica oportuna para poder conocer los resultados del contador de visitas.

2.4.3.— En el caso de las agencias de noticias en euskera, deberán difundir, como mínimo, 12 noticias diariamente a lo largo de todo el año.

31. artikulua.— Diru-laguntzaren nondik norakoa, zertarakoa eta zenbatekoa.

1.— Agindu honen 3. Kapituluak arautzen dituen diru-laguntzak honako gastu-mota hauek estaliko ditu:

1.1.— A, B eta C multzoei dagokienez,

a) Horiei dagozkien prestakuntza-, gauzatze- eta zabalkunde-lanei zuzen-zuzenean egotzi eta agiri bidez frogatu beharreko gastuak. Ez da, hortaz, patrimonializa daitekeen ibilgetu materialean egindako inbertsiorik estaliko.

b) Nolanahi ere, erdal aldizkarien erabateko edo zatiakako itzulpena edota moldaketa diren hedabideen kasuan, edukiak itzuli eta hedabidea argitaratu eta zabaldu ahal izateko egin beharreko gastuak baino ez dira kontuan hartuko.

c) Euskara hutsezko eguneroko prentsa eta aldizkari inprimatuen gehigarri moduan ere zabaltzen diren argitalpenen kasuan, egunkari edo aldizkarietatik aparte banatutakoaren inprimaketa- eta zabalkunde-gastuak bakarrik izango dira laguntzagai.

1.2.— D multzoari dagokionez,

a) Euskara hutsez ari diren irratien kasuan, horiei dagozkien prestakuntza-, gauzatze- eta zabalkunde-lanei zuzen-zuzenean egotzi eta agiri bidez frogatu beharreko gastuak. Ez da, hortaz, patrimonializa daitekeen ibilgetu materialean egindako inbertsiorik estaliko.

b) Euskaraz eta gaztelaniaz ari diren irratien kasuan, euskaraz aritzearen ondorioz egin beharreko lanei zuzen-zuzenean egotzi eta agiri bidez frogatu beharreko gastuak. Ez da, hortaz, euskara ez den beste hizkuntza batean aritzeak ekarritako gasturik kontuan hartuko. Ez da, era berean, patrimonializa daitekeen ibilgetu materialean egindako inbertsiorik estaliko.

1.3.— E multzoari dagokionez:

a) Euskara hutsez ari diren telebisten kasuan, horiei dagozkien prestakuntza-, gauzatze- eta zabalkunde-lanei zuzen-zuzenean egotzi eta agiri bidez frogatu beharreko gastuak. Ez da, hortaz, patrimonializa daitekeen ibilgetu materialean egindako inbertsiorik estaliko.

b) Euskaraz eta gaztelaniaz ari diren telebisten kasuan, euskaraz aritzearen ondorioz egin beharreko lanei zuzen-zuzenean egotzi eta agiri bidez frogatu beharreko gastuak. Ez da, hortaz, euskara ez den beste hizkuntza batean aritzeak ekarritako gasturik kontuan hartuko. Era berean, ez da patrimonializa daitekeen ibilgetu materialean egindako inbertsiorik estaliko.

c) Aurreko bi idatz-zatietan aipaturikoez gain, supenarako ekimenek eta merkatu-azterketa edota bideragarritasun- txostenek eragindako gastuak ere kon-

Artículo 31.— Destino, objeto y cuantía de la subvención.

1.— La subvención regulada mediante el capítulo tercero de la presente Orden cubrirá los gastos siguientes:

1.1.— Grupos A, B y C:

a) Aquellos gastos directamente imputables a tareas de elaboración, materialización y difusión de los mismos y que se acrediten documentalmente. No se cubrirán, por tanto, inversiones en inmovilizado patrimoniales.

b) De todos modos, en el caso de medios de comunicación que sean total o parcialmente traducciones o adaptaciones de revistas en otras lenguas diferentes del euskera, se tendrán en consideración únicamente los gastos necesarios para la traducción de los contenidos y la publicación y distribución del medio de comunicación.

c) En el caso de suplementos de diarios o revistas que también se publiquen íntegramente en euskera, únicamente aquellos gastos directamente imputables a tareas de distribución e impresión de los suplementos publicados independientemente, aparte de los diarios o revistas.

1.2.— Grupo D:

a) En el caso de radios que emitan íntegramente en euskera, los gastos directamente imputables a tareas de elaboración, materialización y difusión de los mismos y que se acrediten documentalmente. No se cubrirán, por tanto, inversiones en inmovilizado patrimoniales.

b) En el caso de radios que emitan en euskera y castellano, los gastos directamente imputables a tareas derivadas de la emisión en euskera y que se acrediten documentalmente. No se cubrirán, por tanto, los gastos derivados de la emisión en otras lenguas diferentes del euskera. Tampoco se cubrirán las inversiones en inmovilizado patrimoniales.

1.3.— Grupo E:

a) En el caso de televisiones que emitan íntegramente en euskera, los gastos directamente imputables a tareas de elaboración, materialización y difusión de los mismos y que se acrediten documentalmente. No se cubrirán, por tanto, inversiones en inmovilizado patrimoniales.

b) En el caso de televisiones que emitan en euskera y castellano, los gastos directamente imputables a tareas derivadas de la emisión en euskera y que se acrediten documentalmente. No se cubrirán, por tanto, los gastos derivados de la emisión en otras lenguas diferentes del euskera. Tampoco se cubrirán las inversiones en inmovilizado patrimoniales.

c) Además de las mencionadas en los dos apartados anteriores, también se tendrán en cuenta los gastos originados por los informes de viabilidad, estudios de mer-

tuan hartuko dira, kasua balitz lurreko telebista digitalen bideragarritasun-azterketenak barne.

1.4.– F multzoari dagokionez:

a) Internet bidezko euskara hutsezko egunkari eta aldizkari kasuan, horiei dagozkien prestakuntza-, gauzatze- eta zabalkunde-lanei zuzen-zuzenean egotzi eta agiri bidez frogatu beharreko gastuak. Ez da, hortaz, patrimonializa daitekeen ibilgetu materialean egindako inbertsiorik estaliko.

b) Internet bidez euskara hutsez ari diren irratien kasuan, horiei dagozkien prestakuntza-, gauzatze- eta zabalkunde-lanei zuzen-zuzenean egotzi eta agiri bidez frogatu beharreko gastuak. Ez da, hortaz, patrimonializa daitekeen ibilgetu materialean egindako inbertsiorik estaliko.

c) Internet bidez zati batean euskaraz ari diren irratien kasuan, euskaraz aritzearen ondorioz egin beharreko prestakuntza-, gauzatze- eta zabalkunde-lanei zuzen-zuzenean egotzi eta agiri bidez frogatu beharreko gastuak. Ez da, hortaz, patrimonializa daitekeen ibilgetu materialean egindako inbertsiorik estaliko.

d) Berri-agentzien kasuan, euskaraz aritzearen ondorioz egin beharreko prestakuntza-, gauzatze- eta zabalkunde-lanei zuzen-zuzenean egotzi eta agiri bidez frogatu beharreko gastuak. Ez da, hortaz, patrimonializa daitekeen ibilgetu materialean egindako inbertsiorik estaliko.

2.– Hedabide orok gastu- eta sarrera-aurrekontu orekatua izango du. Gastuak, betiere, aurreko puntuan zehaztutakoak izango dira.

3.– Hedabide orok gutxieneko finantzaketa-maila propioa izango du. Honako finantzaketa-maila propio hauetako bat hain zuzen ere:

a) Agindu honen babeseko laguntza-deialdira eskararak aurkezteko azken egunean urtebeteko bizitza baino gutxiago duten hedabideen kasuan proportzio hori gutxienez ere gastu-aurrekontuaren % 35 izango da.

b) Lehenagotik ari diren hedabideen kasuan gutxienez ere gastu-aurrekontuaren % 40 izango da.

4.– Aurreko lerroaldean aipaturiko finantzaketa propioa honako diru-sarrera hauez osatuta egongo da:

a) Eskatzailearen diru-ekarpenak.

b) Salmentatik eskuratutakoak.

c) Publizitatetik eskuratutakoak.

d) Entitate pribatuetatik jasotakoak.

5.– Defizitarioak diren hedabideei bakarrik eman ahal izango zaie diru-laguntza. Hots, aurreikusitako gastuak, eskatzaileak ezinbestean jarri beharreko finantzaketa propioarekin berdindu ezin dituzten hedabideei.

cado e iniciativas para la promoción del medio de comunicación. Asimismo se tendrán en cuenta los gastos relativos a estudios de viabilidad de las televisiones digitales terrestres.

1.4.– Grupo F:

a) En el caso de diarios y revistas publicados íntegramente en euskera vía Internet, los gastos directamente imputables a tareas de elaboración, materialización y difusión de los mismos y que se acrediten documentalmente. No se cubrirán, por tanto, inversiones en inmovilizado patrimoniales.

b) En el caso de radios que emitan íntegramente en euskera vía Internet, los gastos directamente imputables a tareas de elaboración, materialización y difusión de los mismos y que se acrediten documentalmente. Tampoco se cubrirán las inversiones en inmovilizado patrimoniales.

c) En el caso de radios que emitan parcialmente en euskera vía Internet, los gastos directamente imputables a tareas de elaboración, materialización y difusión de los mismos en euskera y que se acrediten documentalmente. No se cubrirán, por tanto, las inversiones en inmovilizado patrimoniales.

d) En el caso de agencias de noticias, los gastos directamente imputables a tareas de elaboración, materialización y difusión de los mismos en euskera y que se acrediten documentalmente. No se cubrirán, por tanto, las inversiones en inmovilizado patrimoniales.

2.– Todos los medios de comunicación tendrán un presupuesto de gastos e ingresos equilibrado, siendo los gastos, en cualquier caso, los señalados en el punto anterior.

3.– Todos los medios de comunicación tendrán un nivel de financiación propio. Podrá ser, según el caso:

a) En medios de comunicación que el último día del plazo para la presentación de solicitudes al amparo de esta Orden tengan menos de un año de existencia la proporción será al menos el 35% del presupuesto de gastos.

b) En medios de comunicación que existan con anterioridad, al menos el 40%.

4.– La financiación propia citada en el punto anterior estará integrada por las aportaciones siguientes:

a) Aportaciones de la entidad solicitante.

b) Las obtenidas mediante la venta.

c) Las obtenidas mediante publicidad.

d) Las recibidas de entidades privadas.

5.– Sólo se concederán subvenciones a los medios de comunicación que sean deficitarios, es decir, a aquellos que no puedan cubrir los gastos previstos únicamente con la financiación propia que obligatoriamente debe aportar la entidad solicitante.

6.– Deialdira bildu, baldintza guztiak bete, balorazio irizpideak jarri eta diruz lagundu beharreko hedabide bakoitzari esleitu beharreko diru-laguntza, gehienez Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari eskatutako kopurua izango da, eta gutxienez, 500 eurokoa. Gutxieneko kopuru horretatik beherakorik ez da esleituko. Ondorioz, egoera horretan aurkitzen den hedabidea ez da diruz lagunduko.

7.– Agindu honek ezartzen dituen diru-laguntzak bateragarriak dira edozein erakunde publiko zein pribatu xede berberaz eman ditzaketenekin, betiere, agindu honen bidez lagundutako hedabideak gain finantzaketarik ez badu.

8.– Agindu honen epe-barrutia amaitu eta 37. artikuluan finkatutako justifikazioari ekin eta gero gain finantzaketarik gertatu dela ikusten bada, diru-laguntza zenbatekoa murriztu egingo da, betiere 14. artikuluan zehaztutako bideari jarraituz. Murrizketa hori gain finantzaketaren bestekoa izango da.

32. artikulua.– Esleipen prozedura.

